

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Deialdia eta oinarri arautzaileak, Aiarako udalerrian ematen ez diren eta EAeko udalen batek ematen dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak emateko 2021. urtean

Udal honek, alkatearen azaroaren 4ko 648/2021 Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu du:

Lehenengoa. Onestea Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak emateko 2021. urterako deialdia (diruz lagunduko dira 2020ko irailetik 2021eko ekainera bitartean egindako jarduerak).

Bigarrena. Onestea Aiarako udalerrian ematen ez diren eta EAeko udalen batek ematen dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak emateko oinarri arautzaileak 2021. urterako.

Foru dekretu honen eranskin gisa azaltzen diren deialdiaren oinarriak.

Hirugarrena. Deialdi honen laburpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

Laugarrena. Oinarriei publizitatea ematea, ALHAOn, udalaren iragarki taulan eta udalaren web orrian testu osoaren iragarkia jarrita.

Bosgarrena. Dekretu hau udalbatzari jakinaraztea, hark egiten duen lehen bilkuran.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, oinarri horiek argitaratzen dira, guztiek horren berri izan dezaten.

Aiarako udalerrian ematen ez diren eta EAeko udalen batek ematen dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak emateko oinarri arautzaileak 2021. urterako

1. artikulua. Xedea eta helburua

Oinarri hauen helburua da Aiarako Udalak 2021. urtean udalerriko familiei dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, hain zuzen ere Aiaran erroldatuta egonda, Aiarako udalerrian ematen ez diren musika eta dantza jarduerak egiten dituzten pertsonen inskripzioak eragindako gastuaren zati bat ordaintzeko (sartuta daude Aiarako udalerrian jarduera hori eskaini bai, baina dirulaguntza eskaeran jasotako mailan eskaintzen ez direnak), baldin eta jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batek eskaintzen baditu (zuzenean udalek edo haien mendeko erakundeek eskainitako jarduerak).

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa izango da Aiarako Udalak jarduera horiek ez eskaintzea eta, ostera, EAeko udalek edo haien mendeko erakunderen batek ematea.

2020ko irailetik 2021eko ekainera arte egindako jarduerak lagunduko dira diruz.

Laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez emango dira.

Dirulaguntza horiek Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak ematea arautzen duen ordenantzari lotuta egongo dira. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi zuen eta 2020ko apirilaren 15eko ALHAOn argitaratu zen, 42. zenbakian.

Halaber, honako hauek aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen Udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa; eta aplikatu daitezkeen legeria osagarria.

2. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Kontzeptu hau dela eta ematekoak diren laguntzen zenbatekoa ez da, guztira, 6.000,00 euro baino gehiago izango, eta 2021eko indarreko aurrekontuaren 330.480.005 partidaren kontura finantzatuko da.

3. artikulua. Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga

Hauxe izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan erroldatutakoei aplikatzen dizkien tarifan eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifan arteko aldearen ehuneko 100.

4. artikulua. Onuradunak eta eskatzaileak. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta frogatzeko modua

Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiarako udalerrian erroldatuta daudenak izango dira onuradunak.

Hala ere, diruz lagundu beharreko jarduera egingo duen adingabearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu behar du laguntza eta betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez 6 hilabetez segidan Aiara udalerrian erroldatuta egotea. (Errolda ziurtagiria aurkeztuz egiaztatu behar da).

b) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekikoak egunean izatea. (Egiaztatzeko, aipatutako erakundeen egiaztagiria aurkeztuko dira edo, bestela, baimena izenpetuko da udalak berak eska dezan horiei buruzko informazioa).

c) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea. (Udalak berak egiaztatuko du hori ofizioz).

5. artikulua. Onuradunen eta eskatzaileen betebeharrak

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Diruz lagundu daitekeen jarduerara joatea. Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez eskolen ehuneko 80ra joan behar da; egiaztagirietan, bertaratze orokorrari buruzko informazioa agertuko da.

Hauek dira eskatzaileen betebeharrak:

a) Aiarako Udalari betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea. Halaber, egiaztatu egingo da diruz lagundu daitekeen jardueran izandako bertaratzea.

b) Dirulaguntza honen esparruan egin daitezkeen egiaztapen jarduerak onartzea, eta eskatzen zaion informazioa ematea.

c) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarreraren bat lortuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi behar diote Aiarako Udalari.

d) Jasotako funtsak erabili direla frogatzen duten agiriak edukitzea, zeren eta egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

e) Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

Eskaeran jaso beharreko datuen edo agiriren bat ematen ez badute edo faltsua ematen badute, eskaera baliogabetuko da, eta horrez gainera, eskatzaileari erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

6. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia. Adingabekoen kasuan, eskatzaileak jarduera egiten duen onuradun adingabearen aita, ama edo legezko tutorea izango da.

b) Adingabeen kasuan, familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunaren datuak; bestela, eskatzaileari adingabearen legezko tutoretza ematen dion ebazpena.

c) Jarduera egiteagatik udalari edo mendeko erakundeari ordainketa egin izana egiaztatzen duen bankuaren jatorrizko agiria edo, horrelakorik izan ezean, dagokion ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egina dagoela jaso behar du).

d) Jarduera zein zentrotan egin den, haren jatorrizko ziurtagiria, honakoak adierazten dituen: jardueraren hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira eta jardueraren kostua.

e) Zinpeko aitortpena, beste dirulaguntzarik eskatu den ala ez argitzen duena; halakorik eskatu bada, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaerari erantzun badiote, dirulaguntza onartzen (emandako zenbatekoa adierazi behar da) edo ukatzen duen ebazpenaren fotokopia konpultsatua. Ebazpena emateko zain egonez gero, horren berri eman behar da (II. eranskina).

f) Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak (adingabe onuradunaren gurasoak edo legezko tutoreak) egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordezi ziurtagiria eska diezaion administrazio aginpidedunari, hain zuzen, jasotzen duena, eskatzaileari dagokienez, egunean dituela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

g) Adierazpena, dirulaguntzaren eskatzailea eta onuraduna ez daudela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean (III. eranskina).

h) Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutakoek eta erroldatuta ez daudenek zein tarifa ordaindu behar duten.

i) Aiarako udalerrriaren errolda ziurtagiria, adierazten duena dirulaguntzaren onuraduna eta haren aita, ama edo legezko tutorea (onuraduna adingabea bada) eta gainerako kasuetan eskatzailea noiztik dauden bertan erroldatuta.

j) Hala badagokio, Lanbideren ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzailea langabezian dagoela (inskripzio aldia agertuko da).

7. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 20 egun naturaleko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

8. artikulua. Instrukzio egiteko eta ebazteko organo eskuduna

Alkate lehendakariak izango du laguntzak izapidetzeko eta ebazteko eskumena, kasuan kasuko informazio batzordearen txostena jaso ondoren.

9. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea bost hilabetekoa izango da, udaletxean eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

Laguntzak eman edo ukatzen dituen ebazpenak administrazio bidea amaituko du eta haren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio hura eman zuen organoari; bestela, administrazioarekiko auzi bidera jo daiteke.

Arespalditza, 2021eko azaroaren 4a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

**AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA
JARDUERETARA JOATEKO LAGUNTZEN ESKAERA**

SOLICITUD DE AYUDAS POR LA ASISTENCIA A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA
QUE NO SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE AYALA

3.04

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA / PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD					
1. abizena / 1.º apellido	2. abizena / 2.º apellido	Izena / Nombre	NAN-AIZ-Pasaportea / DNI-NIE-Pasaporte		
<input type="checkbox"/> Interesduna naiz / Soy la persona interesada		Sexua / Sexo	Giz. / Hom. <input type="checkbox"/>	Ema. / Muj. <input type="checkbox"/>	Bestel. / Otras <input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> Hau ordezkaten dut: / Represento a:					
Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ:/DNI-NIE-Pasaporte-NIF del representado/a:					
JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES (según Ley 39/2015 Legearen arabera)					
<input type="checkbox"/> Elektronikoki (ziurtagiri digitala behar da) / Electrónicamente (se necesita certificado digital)					
E-posta (abisuetarako) / E-mail (para avisos)					
<input type="checkbox"/> Posta arruntaz / Por correo ordinario					
Kalea / Calle	Zk. / N.º	Solairua/Piso	Aldea / Mano	Telefonoa(k) / Teléfono(s)	
P.K. / C.P.	Herria / Municipio		Probintzia/ Provincia	E-posta / E-mail	
BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS					
Kontu korrantearen IBAN kodea / Código IBAN de la cuenta					

Adierazten du / Expone

1.- Onuradunak musika edo dantza ikastaro bat egin duela. Hauek dira datuak: / Que el beneficiario ha realizado un curso de música o danza, de acuerdo con los siguientes datos:

* **Dirulaguntza eskaeran jasotako jarduerak egin dituzten onuradunen kopurua** / Número de beneficiarios que han realizado las actividades por las que solicita subvención

* **Dirulaguntza eskaeran jasotako jardueren kopurua** / Número de Actividades por los que se solicita subvención

ZENBAKIA NÚMERO	ONURADUNAREN IZENA NOMBRE BENEFICIARIO	JARDUERA (diziplina eta maila). Dirulaguntzaren xede diren guztiak. ACTIVIDAD (disciplina y curso) Todas por las que se solicita.

JARDUERAREN - IKASTAROAREN DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD - CURSO

IZENA ETA MAILA NOMBRE Y NIVEL	HASIERA EGUNA FECHA INICIO	AMAIERA EGUNA FECHA FIN	ZENBATEKOA IMPORTE	JARDUERA UDALERRIA MUNICIPIO EN QUE SE IMPARTE	EGITEN DEN

2.- Betetzen dituela udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara doazen Aiarako Udalak laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan ezarritako baldintzak. / Que cumple con los requisitos establecidos en la Ordenanza Reguladora de la concesión de Ayudas del Ayuntamiento de Ayara-Ayala por la asistencia a actividades musicales y danza, que no sean ofrecidos por el Ayuntamiento.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

ERANTSITAKO AGIRIAK: / SE ADJUNTA:

- Eskatzailearen eta onuradunen NANaren fotokopia. / Fotocopia del DNI del solicitante y beneficiarios.
- Familia liburuaren fotokopia, non jasotzen diren eskatzailearen eta adingabe onuradunen datuak. / Fotocopia del Libro de Familia comprensiva de los datos del solicitante y del menor o menores beneficiarios.
- Hala badagokio, adingabe onuradunaren legezko zaintza emateko hartutako ebazpena. / En su caso, Resolución que otorga la custodia legal del menor beneficiario.
- Jarduera edo ikastaroaren ordainketa egin izana egiaztatzen duen bankuaren jatorrizko agiria edo, horrelakorik izan ezean, ordainagiriaren kopia konpultsatua (ordainketa egina dagoela jaso behar du). / Justificante bancario del pago del curso o actividad ó en su defecto copia compulsada del recibo (que deberá expresar que ha sido abonado).
- Jarduera zein zentrotan egin den, haren jatorrizko ziurtagiria, honakoak adierazten dituena: hasiera eta amaiera egunak, eskolen guztirako ordu kopurua, bertaratze datua eta jardueraren kostua. / Certificado original del Centro en el que se ha realizado la actividad, indicando: fecha de inicio y fin, nº de horas impartidas y asistidas y coste de la actividad.
- Beste dirulaguntza batzuen berri emateko adierazpena (II. eranskina). / Declaración sobre existencia de otras subvenciones (Anexo II).
- Debekuen eraginpean ez egoteari buruzko adierazpena (III. eranskina). / Declaración de no estar incurso en prohibiciones (Anexo III).
- Jarduera egiten den herriko udalaren edo haren mendeko erakundearen ziurtagiria, non agertzen den zein den onuradunak ordaindu beharreko tasa edo tarifa. Halaber, idatzita egongo da udalerrri horretan erroldatutako zein tarifa edo tasa ordaindu behar duten. / Certificado del Ayuntamiento u organismo dependiente de él en el que se realice la actividad, comprensivo de la tasa o tarifa que debe abonar el beneficiario y cuál es la tarifa o tasa que corresponde a un empadronado en ese municipio.
- Aiarako udalerrriaren errolda ziurtagiria, adierazten duena eskatzailea eta onuradunak noiztik dauden bertan erroldatuta. / Certificado de empadronamiento en el Municipio de Ayala, donde conste la antigüedad del solicitante y de los beneficiarios.
- Administrazio aginpidedunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, Aiarako Udalak egiaztapenaren aurka ez egitea. / Certificado acreditativo de estar al corriente de pago de los impuestos de la Hacienda Foral y con la Seguridad Social relativos al solicitante, o en su caso, no oponerse a la comprobación por parte del Ayuntamiento de Ayala.

Dokumentu hau sinatzeak baimena ematen dio Aiarako Udalari, eskura dituen datu-bitartekaritzako sistemen bidez, edozein administrazioen esku dauden eta espediente hau izapidetzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko, berariaz aurka egiten ez baduzu behintzat. **AURKA EGONEZ GERO, DAGOKION DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHARKO DU.**

EGIAZTAPEN HORREN AURKA BAZAUDE, MARKATU X BATEZ HONAKO LAUKI HONETAN:

Aurka nago

La firma del presente documento autoriza al Ayuntamiento de Ayala, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, a realizar las comprobaciones y consultas estrictamente necesarias de los datos que obren en poder de cualquier Administración y que resulten precisos para la tramitación del presente expediente, salvo que usted se oponga expresamente. EN CASO DE OPOSICIÓN DEBERÁ APORTAR LA DOCUMENTACIÓN CORRESPONDIENTE.

SI USTED SE OPONE A DICHA COMPROBACIÓN MARQUE CON UNA X EN EL SIGUIENTE RECUADRO:

Me opongo

Horregatik guztiagatik, dirulaguntza ESKATZEN DUT, ordenantza arautzailearen arabera.

Por todo lo anteriormente expuesto, **SOLICITO**, la subvención correspondiente de acuerdo con la Ordenanza Reguladora de la concesión.

Data / Fecha:

Sinadura Digitala (klik eranste) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

**3.04 AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA JARDUERETARA
JOATEKO LAGUNTZEN ESKAERA**

SOLICITUD DE AYUDAS POR LA ASISTENCIA A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA QUE NO SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE AYALA

II. ERANSKINA / ANEXO II

D./D^a [redacted] **jaunak/andreak,**
nire erantzukizunaren pean, honakoa ADIERAZTEN DUT: / DECLARO, bajo mi
responsabilidad que:

- EZ, ez dut eskatu beste dirulaguntzarik eskaera honetan jasotako jarduerarako.** / Que **NO** he solicitado ninguna otra subvención para la misma actividad que se solicita con esta petición.
- BAI, beste dirulaguntza batzuk eskatu ditut eskaera honetan jasotako jarduerarako (erantsi eskaera).** / Que **SI** he solicitado otras subvenciones para la misma actividad que se solicita en esta petición (adjuntar petición).

Hala bada, datu hauek bete behar dira: / En este caso, se deberá rellenar los siguientes datos:


- **Dirulaguntza erakunde honi eskatu zaio:**/ Organismo al que se solicita:

[redacted] **(Foru Aldundia, Eusko Jauriaritza, eta abar).** / (Diputación Foral, Gobierno Vasco, etc....).

- **Dirulaguntza onartu bada, adierazi zenbatekoa ([redacted] euro) eta erantsi ebazpenaren fotokopia.** / Si se ha obtenido respuesta a la petición concediendo la subvención, indicar la cantidad: [redacted] euros. y adjuntar fotocopia de la resolución.

Dirulaguntza ukatu bada, jarri X. / Indicar si ha sido denegada.

Data / Fecha: [redacted]



Sinadura Digital (klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

_____ **Eskuzko izenpea / Firma Manual**

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F
✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.04

**AIARAKO UDALAK ESKAINTZEN EZ DITUEN MUSIKA ETA DANTZA JARDUERETARA
JOATEKO LAGUNTZEN ESKAERA**

**SOLICITUD DE AYUDAS POR LA ASISTENCIA A ACTIVIDADES MUSICALES Y DANZA QUE NO
SEAN OFRECIDOS POR EL AYUNTAMIENTO DE AYALA**

III. ERANSKINA / ANEXO III

D./D^a. [REDACTED]

jaunak/andreak nire erantzukizunaren pean **ADIERAZTEN DUT ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, 13. artikulua jasotzen dituen onura - dun izateko debekuen eraginpean.** / DECLARO, bajo mi responsabilidad que no estoy incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario de una subvención pública, recogidas en el artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.

Data / Fecha: [REDACTED]



Sinadura Digitala (klik eransteko) / Firma Digital (Clic para adjuntar)

Eskuzko Izenpea / Firma Manual

AIARAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURU JAUNA.
SR. ALCALDE PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE AYALA.

I.F.K. C.I.F. P0101100F
✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus